



## IRAGARKIA

Alkateak 2024ko ekainaren 6an emandako dekretu baten bitartez Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzeko dirulaguntza arautzen duten oinarriak onartu dira eta honen bidez argitaratzen da:

### Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzeko dirulaguntza arautzen duten oinarriak

Bergarako Udalak 2022ko urtarrilaren 31n egindako bileran onartu zuen Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2022-2024. Bertan lerro estrategiko desberdinak jasotzen dira eta lehenengoa da Ekintza Soziala izenekoak. Dirulaguntzen plan estrategikoa 2023ko martxoaren 27an aldatu zen eta lerro horretako 8. ekintza bezala sartu zen ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko dirulaguntza 2023rako.

2024ko maiatzaren 27an egin den bileran erabaki plan estrategikoa aldatzea eta programa hau 2024ra luzatzea. Bertan aurreikusten da dirulaguntza hau 2024an ere emango dela eta dirulaguntza emateko deialdi irekia egingo dela; beraz, helburu horrekin prestatu dira oinarri hauek.

#### **1. artikulua. Xedea**

Oinarri hauen xedea da ohiko etxebizitzari dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuota ordaintzeko dirulaguntzak ematea, egoera ekonomiko zaugarria izan dezaketen bizikidetzak unitateen titularrei.

#### **2. artikulua. Aurrekontua**

Dirulaguntza-programa honetarako dagoen kreditu erabilgarria 20.000 eurokoa da, eta OHZren DIRULAGUNTZA izeneko partida ekonomikoaren kontura finantzatuko da: 1 3500.480.230.01.99 2024 (1951)

#### **3. artikulua. Dirulaguntza jasotzaile izateko baldintzak**

1. Ohiko etxebizitzagatik ordaindu behar den zergaz ari gara eta ohiko etxebizitza horien subjektu pasibo gisa ageri direnek dirulaguntza jaso dezakete baldin eta, bizikidetzak unitate bateko kide izanik, eskaera egin aurreko urte naturalean guztien artean dituzten diru-sarrerak gordinak taula honetan agertzen diren muga barruan badaude:

| Kideak | 24.000 € artekoak | 24.000 € eta 38.000 € artekoak | 38.000 € eta 50.000 € artekoak | 50.000 € eta 90.000 € artekoak | 90.000 €tik gorakoak |
|--------|-------------------|--------------------------------|--------------------------------|--------------------------------|----------------------|
| 1-2    | %50               | %0                             | 0                              | 0                              | 0                    |
| 3      | %60               | %30                            | 0                              | 0                              | 0                    |
| 4      | %70               | %40                            | %25                            | 0                              | 0                    |
| 5      | %90               | %50                            | %40                            | %25                            | 0                    |
| >5     | %90               | %70                            | %50                            | %40                            | 0                    |

2. Dirulaguntza eman ahal izateko, hauek hartuko dira kontuan:

— Bizikidetza-unitatearen kide kopurua zehazteko, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena, abenduaren 22ko 14/2022 Legeak, 25. artikuluan jasotakoa kontuan edukiko da (1.– *Bizikidetza-unitatea osatzen dute egoitza batean bizi diren pertsona batek edo gehiagok. Bat baino gehiago badira, elkarrekiko lotura izan behar dute: odolkidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna, bigarren mailarainokoa, adopzioa, familia-harrera iraunkorra edo adopzio aurreko harrera, bai eta ezkontza edo ezkontzaren antzekoa ere.*).

— Ondorio bererako, eskaera egiten den urteko urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal Erroldan dagoen informazioa, eskatzailea erroldatuta dagoen etxebizitzari buruzkoa (ohiko etxebizitza).

### 3. Bete beharreko baldintzak

Honako baldintza hauek bete beharko dira:

a- Eskaera egiten den urteko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuota borondatezko epearen barruan ordainduta izatea.

b- Bizikidetza-unitateko kideetako inork ez du jabetzan beste ondasun higiezinik izango, dirulaguntza jasoko duen etxebizitzaz gain (ez da kontutan hartuko trastelekurako den beste lokalen bat). Ondorio honetarako, ondasunen jabetzaren inguruko zinpeko aitortpena eskatuko da.

c- Bizikidetza-unitatearen ohiko etxebizitzaren balio katastrala 160.000 eurotik beherakoa izan behar da. Balio hori gainditzen badu, dirulaguntza eman ahal izango da baina kopurua kalkulatu da gehienez ere balio horrekiko.

d- Bizikidetza-unitateko kide guztien artean ibilgailu bat izan ahal dute gehienez ere. Bigarren ibilgailu bat izanez gero, ibilgailu hori lanera joateko erabiltzen den ibilgailua izango da. Ondorio honetarako, ibilgailua lanera joateko erabiltzen dela adierazten duen zinpeko aitortpena eskatuko da.

e- Baldin eta ondasunaren titular bat baino gehiago badago eta jabeetariko batzuk bizikidetza-unitateko zati ez badira, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki banatuko da laguntza eskatzen duten eta bizikidetza-unitatearen zati direnek jabetzan duten portzentajearen arabera.

f- Bizikidetza-unitateko kideetako inork ez du udalarekin inongo zorrik izango. Nolanahi ere, Udalarekin egunean daudela joko da haien zorra zatikatua badago eta erregulartasunez betetzen ari badira zatikatutako kuoten ordainketa.

g- Familia ugariagatik zerga hobaria jasotzea eta araudi honetan arautzen den ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko dirulaguntza bateraezinak dira.

h- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga hau ordaintzeko helburuarekin Gizarte Larrialdietarako Laguntza edo Gizarte Larrialdietako Udal Laguntzak jasotzen badira, ezingo da dirulaguntza hau jaso.

## 4. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Laguntza eskatzeko, artikulua honen 3. puntuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du interesatuak.

Horri dagokionez, jakinarazten da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek eskubidea dutela dokumenturik ez aurkezteko honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Dagoeneko korporazioaren esku egotea; kasu horretan, ofizioz sartu ahal izango dira, baldin eta eskatzaileak eskabidean honako alderdi hauek adierazten baditu, eta emakida-prozeduraren instrukzioaz arduratzen den organoak egiaztatu beharko ditu:

1) Zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo, hala badagokio, eman ziren.



2) Aurkezpena eragin zuen prozeduraren izendapena. Dirulaguntzen deialdia denean, argitalpenaren epigrafea eta urtea zehaztuko dira.

Administrazioaren esku dauden datu eta dokumentuek indarraldia galduko dute, bai baliozkoak ziren aldia amaitu delako, bai prozeduran aurkeztu zirenetik bost urte baino gehiago igaro direlako. Nolanahi ere, udalak interesdunari berriro aurkezteko eskatu ahal izango dio, ebazteko beharrezkoa den edozein alderdi behar bezala egiaztatu gabe gelditu bada.

b) Beste edozein administraziok eginak izatea. Kasu horretan, Bergarako Udaleko sail eskudunak zuzenean kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar dituen datuak eta/edo dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu arrazoiak emanez.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

Hala ere, dokumentua eskuratzea materialki ezinezkoa den kasuetan, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentua aurkezteko, edo, bestela, dokumentu horren bidez egiaztatutako betekizunak beste bide batzuen bidez egiaztatzeke.

2. Eskaera aurkezteak esan nahi du pertsona edo entitate eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak bere horretan onartzen dituela.

3. Dirulaguntza eskaera egiteko honako agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Eskaera, derrigorrez udalak prestatutako eredu ofiziala erabilia (F0112). Eskaera hori behar bezala bete eta sinatu behar du zergaren subjektu pasiboak.

b) Interesatuaren izenean eskaera ordezkari batek aurkezten badu, ordezkaritza-agiria (F0136) bertan zehaztutako dokumentuekin.

c) Laguntza-eskatzailearen NANaren edo AIZaren edo pasaportearen kopia.

d) Kontu korrontearen digitu guztiak (IBAN kode osoa).

e) Ondasunen jabetzaren inguruko zinpeko aitortpena, 3.3.b artikuluko baldintza betetzeko.

f) Beharrezkoa balitz, bigarren ibilgailuaren erabileraren inguruko zinpeko aitortpena, 3.3.d artikuluko baldintza betetzeko.

g) Eskaera egiten den aurreko ekitaldiari dagozkion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenak.

h) Beste administrazioekin zorrik ez izatearen inguruko zinpeko aitortpena.

Udalak ofizioz egiaztatuko du erroldatze-baldintza betetzen dela eta Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei 18 urtetik gorako bizikidetz-unitateko kide guztiei buruz:

- Foru Ogasuna:

+Pertsona fisikoen errentaren gaineko Zerga.

+Ondasun higiezinaren jabetza.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Azken Pertsona fisikoen errentaren gaineko Zergaren aitortenaren kopia  
Errenta-aitorpena egin ez badu, dagokion Foru Ogasunak emandako ziurtagiria, egin ez duela eta horretara behartuta ez dagoela jasotzen duena.
- Estatu mailan etxebizitzaren jabe edo usufruktuarioa ez izatearen ziurtagiria, bizikidetzatako kide guztiena, Jabetza Erregistroak igorria, laguntza eskaera egin baino gehienez ere 30 egun lehenagokoa.

Goian adierazitako inprimakiak interesdunen eskura egongo dira Bergararren Arreta Zerbitzuan eta Udalaren webgunean. <https://www.bergara.eus/tramiteak>.

## **5. artikulua. Dirulaguntzak zehazteko irizpideak**

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotaren gainean kalkulatu da 2.1. artikuluko taula aplikatu ondoren ateratzen den portzentajea.

Zenbateko osoak udaleko aurrekontuan izendatua dagoena gainditzen duenean, kopuru osoaren muga horretaraino proportzionalki banatuko dira.

2. Dirulaguntza zehazteko bizikidetzatako kideen Pertsona fisikoen errentaren gaineko Zergaren aitortutako sarrera gordinak hartuko dira kontuan.

3. Bizikidetzatako unitatea edo unitate horretako kideren bat PFEZren aitortzea egitetik salbuetsita balego, ulertuko da unitateak edo unitateko kide horrek ez duela diru-sarrerarik.

## **6. artikulua. Dirulaguntza eskaerak bideratzeko prozedura**

— Dirulaguntza eskatu nahi duten zergadunek eskaera-orria aurkeztu beharko dute Begarako udaleko Erregistro Orokorrean, dokumentu guztiekin (4.3 artikulua) dirulaguntzaren deialdian zehaztu bezala.

— Agiriak aztertu eta egiaztatu egingo dira, eta horren ondoren proposamena egingo da, 2.1. artikuluko taula aplikatuta ateratzen diren dirulaguntzak ordain daitezzen.

— Ebazpenaren jakinarazpena ezarrita dauden legezko baliabideak erabiliz egingo da.

— Eskaerak uztailaren 1etik urriaren 31ra arte egin daitezke eta interesatuak emandako k/k baten sartuko da dirulaguntzaren kopurua.

## **7. artikulua. Akatsak zuzentzea**

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie –jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera–, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, eskaera artxibatuz, 39/2015 Legeko 68. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

## **8. artikulua. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea**

Gizarte Zerbitzuak.

## **9. artikulua. Prozedura**

### Instrukzioa eta proposamena

1. Gizarte Zerbitzuei dagokie deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egi-tea.
2. Beharrezkoak diren txostenak eskatu eta eskaeraren gaineko txostena Gizarte Zerbitzuak egin ondoren, Antolakuntza batzordeak proposamena bideratuko dio Alkateari erabakia har dezan.

### Ebazpena

Laguntza edo dirulaguntza emateko edo ez emateko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta, edo-zelan ere, erabakia deialdiaren oinarri-arauetan jasotako irizpide objektiboen arabera hartu dela egi-aztatu beharko da.

Dirulaguntza ematen bada, eskatzaileari jakinaraziko zaion erabakian, berariaz agertuko dira, bes-teak beste, dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa era.

Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da dirulaguntzak es-katzeko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Aipatutako epean ebazpenik ez balego, aurkeztu-tako eskaera atzera bota dela ulertu ahal izango du eskatzaileak.

### Ordainketa

Onartutako eskaeren berri Kontuhartzaitzari emango zaio ordainketa egiteko.

## **10. artikulua. Dirulaguntza itzuli arazteko prozedura**

1. Dirulaguntza eman zuen organoak berak izango du eskumena jaso den zenbateko osoaren edo zati baten itzulketa exijitzeko akordioa hartzeko.
2. Dirulaguntza itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo dirulaguntza ematen duen or-ganoak hala erabakita, hura izapidetzeko ardura duen administrazio-atalak txostena egin eta gero, edo bestela banakoren batek eskatuta edo salatuta.
3. Prozedura izapidetzean, beti berrmatuko da interesdunari entzunaldia emateko eskubidea.
4. Emandako dirulaguntza osoa edo horren zati bat ez dela bidezkoa egiaztatuz gero, organo esku-dunak ebazpen arrazoitua emango du, eta bertan argi adieraziko du zergatik itzuli behar den dirua, zenbat itzuli behar den, nola eta noizko, eta onuradunari ohartaraziko zaio dirua agindutako epean itzuli ezean premiamenduzko bideari ekingo zaiola.
5. Itzultzeko prozedurari arau-hauste administratibo baten ondorioz ekin bazaio, horren berri emango zaio organo eskudunari, dagokion zigor-prozedurari hasiera eman diezaion.
6. Itzultzeko prozedura dirulaguntzaren eskatzaile edo onuradun gisa agertzen diren pertsona fisi-koen aurka zuzenduko da.
7. Dirulaguntza gehi dagozkion berandutza-interesak itzultzeko erantzukizun solidarioa edo subsidi-arioa erabakitzeke, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.



### **11. artikulua. Bermeak**

Ez da beharrezkotzat jotzen emandako laguntzak direla-eta udalaren aldeko bermeak eskatzea.

### **12. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeke behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

### **13. artikulua. Oinarri-arauen interpretazioa**

Oinarri-arau hauek interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu, bera baita deialdi hau onartzeko eskumena duen organoa, dena delako batzorde informatzaileak, hala bada-gokio, aldez aurretik programaren arabera txostena egin eta gero.

### **14. artikulua. Araudi aplikagarria**

Oinarriotan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretua, Bergarako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Bergarako Udalaren Aurrekontua Betearazteko Araua, eta gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak.

### **15. artikulua. Oinarrien aurkako errekurtsok**

Oinarri-arau hauek onartzeko akordioaren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen duen, berraztertzeke errekurtsoa jarri ahal izango da nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik eta hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hileko epean. Aipatutako bi epeak oinarri-arau hauek deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkotzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurtsok jarri ezingo denik.

Bergara, 2024ko ekainaren 19a

Behin-behineko Alkateak